



Andoain, 2023-11-08

*“Kazetaritza saria” eta “Komunikazio saria” emango dira, eta bakoitzerako lau finalista izendatu ditu epaimahaiak*

## 2023KO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU ZORTZI FINALISTAK

Azaroaren 29an izango da sari banaketa ekitaldia Andoainen, eta han nortzuk diren aurtengo saridunak jakinaraziko da, eta ohorezko mugarrria entregatuko da Menane Oxandabaratz kazetariari.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiak izendatu ditu aurtengo finalistak. Bi sari nagusi emango dira, biak maila berekoak, bederatzina mila eurokoak: *Kazetaritza saria* bata, eta *Komunikazio saria* bestea. Bi sarietarako launa finalista izendatu ditu epaimahaiak. Zortzi finalista horien arteko bi izango dira, beraz, aurtengo RAKSen saridunak. Hona finalistak:

<i>Kazetaritza saria</i>
<b>BIDEAK</b> podcasta, NAIZ irratiak eta Mediabaskek elkarlanean sortutakoa.
<b>Zelan sentitzen zara?</b> , GEURIA komunikabidearen ale berezia
<b>KINKA</b> podcasta, BERRIA.
<b>Urte batetik bertzera, mundu batetik bertzera</b> , Xabier Itzainaren kronika sorta dantzan.eus hedabidean.

<i>Komunikazio saria</i>
<b>LORE HOSTOAK</b> podcasta, EITB Podkast
<b>#10garrena</b> podcasta, EITB Podkast
<b>MUAK ET</b> webseriea
<b>HARPA JOTZEN</b> podcasta, EITB Podkast

*(I eranskinean jasotzen dira epaimahaik baloratu dituen merituak)*

Finalisten artean azkenean bi saridunak nortzuk diren -Kazetaritza sariko irabazlea bata eta Komunikazio sarikoa bestea- sari-banaketa ekitaldian jakingo da. Sari-banaketa ekitaldia azaroaren 29an izango da, asteazkenarekin, Andoainen, Bastero Kulturgunean. Finalistak ere bertan izango dira, eta beraiek ere orduan jakingo dute, ez lehenago, nortzuk diren saridunak.

Aurtengo sari-banaketa ekitaldiak Menane Oxandabaratz kazetaria omenduko du, ohorezko mugarri izendatuz.

Ohorezko mugarria nahiz finalistak izendatu dituen eta sariak erabakiko dituen epaimahaia ondorengoek osatzen dute: **Eneko Bidegain Aire** (idazlea eta MUko HUHEZlko irakaslea), **Itxaro Borda Xarriton** (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), **Aingeru Epaltza Ruiz de Alda** (idazlea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea), **Miren Gabantxo Uriagereka** (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), **Pantxika Maitia** (kazetaria eta film-egilea), , **Ion Muñoa Errasti** (Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Graduko irakaslea) eta. Mahaiburua Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna, **Marta Lasa Goñi**, eta idazkaria, **Arantza Aguado Perugorria**, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria dira.



**Andoaingo Udala**

Euskara Zerbitzua

## **EPAIMAHAIK BALORATU DITUEN MERITUAK**

### ***Kazetaritza saria***

#### **BIDEAK** podcasta, NAIZ irratiak eta Mediabaskek elkarlanean sortutakoa

Bizi ditugun garai konbultsoetan, indarrean den dramarik latzenetako bati heldu dio Naiz Irratiaren eta Mediabask-eko BIDEAK podcastak: migrazioaren eta errefuxiatuen gaiari. Bidasoako pasabideari helduta, askotariko ahotsak bildu dituzte lan honetan, hasi puntako ordezkari instituzionaletatik, gaiari aritu eta aditu direnen testigantzak ere bai, (Mikel Mazkieran edo Iker Barbero zuzenbidean adituak), eragileetatik pasa (Irungo Harrera sarea, Lapurdiko sostengu sarea...), eta noski, drama hau azalean bizi duten pertsonenganaino: podcastaren benetako protagonista diren migratzaileetaraino (Nadege, Amadou, Abdou, Adama...).

Bistan da landa lan handia dagoela atzetik, ahalegin aparteko bat auziari prisma bilketa handia azaltzeaz gain, saiakera ikusten da momentuko soinuak ere biltzeko; esaterako, Irunen zelatan egoten diren boluntario sareko gautxoriekin ere izan dira. Migratzaile zenbaiten konfiantza guztietatik begiratzeko. Datu lortzea ere lortu dute; hala, gure lurraldeetara iritsi aurretik jasan behar izan dituzten askotariko pasadizoak kontatu dituzte lehen pertsonan.

7 atalak arin entzuten dira, gai mardula izanagatik ere. Testigantza batzuk barruraino heltzen dira, bere gordinean azaltzen direlako. Gaiak ez du besterik merezi.

#### **Zelan sentitzen zara?, GEURIA** komunikabidearen ale berezia

Bizkaiko Hego Uribe eskualdeko *Geuria* aldizkariak 2023ko ekainean argitaratutako ale monografikoa da *Zelan sentitzen zara?*. Emozioen eta sentimenduen gaiari psikologiaren, medikuntzaren, kirolaren, kulturaren, heriotzaren, gazteen, adinekoren eta abarren begiradatik heltzen diote, eskualdeko pertsonen (aditu nahiz herritarren) eskutik, eta kazetaritzako hamaika genero uztartuz.

Aldizkariaren sarreran dioten moduan, “egia da gaia ez dela eskualdera mugatzen: gai orokorra da, eta edozein hedabidek ere publikatu zezakeen. Gurea ez da eskualde isolatua eta bertako herritarrok ere sentimenduak eta emozioak ditugu, nola ez. Orain arte erakutsi ez dena azaleratzen saiatu gara ale berezi honetan eskualdeko herritarrekin”. Azpimarratzekoa da ahalegin horren ausardia, bertako herritarren aurpegia jarrita gaia lantzeko gaitasuna eta emaitzaren kalitatea. Tokiko prentsak tokian tokiko gai konkretuak lantzeaz harago, kazetaritzari eta herritarrei egin diezaiekeen ekarpenaren adibide aipagarria da aldizkariaren ale monografiko hau.

#### **KINKA** podcasta, BERRIA.

2022ko urriko lehen egunetan hasi ginen Berriako Kinka podcasta entzuten, Interesgarria, biziki, Nagore Arin eta Olatz gaituen aldaketa klimatikoaren gaia: “Kinka” larrian gaudela errepikatzen digute, hamabostean behin, oren erdi bateko saioan hiztegia arakatuz, erreportajeren bat eginez, gurbilkiago edo gutxiago kontsumituz bizitzeko aholkuak emanez eta finitzeko gaiari lotua den kantu bat eskainiz.

Sarrerako sintonian, Greta Thunberg entzuten da emankizunaren LA ematen, eta dinamikoki doa azkeneraino. Gaiak dorpeak izan arren badu halako arintasun bat, ez bide dutelako kolapsologo askoren gisara, katastrofistegiak agertu nahi. Baina den-denak aipatzen dira sakon eta ahoan bilorik gabe. Gainera, euskal ekologismoa zertan den ere azaltzen dute, ekologiaren tematika sozializatuz eta jendearen hizpidera ekarriz.

**Urte batetik bertzera, mundu batetik bertzera**, Xabier Itzainaren kronika sorta dantzan.eus hedabidean.

Xabier Itzainak dantzan.eus webgunerako idatzi dituen kronikek irakurlea gatibatzen dute. Antropologo itsasuarrak urte bete pasatu du Mexikon bere familiarekin. Hamalau artikulu luze eta bizi oparitzen dizkio irakurleari, eta lortzen du irakurle hori bertan balitz bezala sentiaraztea. Berak dioenez, ez dira ikerketak, baizik eta lekukotasun soilak. Dantza moldea, ohiturak eta jantziak egiazki politikoak direla erakusten digu, bereziki garrantzitsuak direlako autoktonoen kulturak bermatzeko. Argazki, afixa, margo lanez ilustraturik hainbat elizabesta eta herri kulturaren adierazgarri diren ospakizunak biziartzen dizkigu, aldi oro dantzen eta karrikaldien errituala zehaztuz. Coyoacan auzoan, Oaxacan, Guadalajaran edo Chiapaseko eskualdeetan ikusiak partekatzen ditu, narko-telesailak ematen diguten Mexikoren beste ikuspegi bat eskainiz.

## ***Komunikazio saria***

### **LORE HOSTOAK** podcasta, EITB Podkast

Musika eta kalaka uztartzen ditu Lore Hostoak podcast-ak, EITB-ren eskutik. Ekain Perezek gidatzen duen musika-elkarrizketa saioa da, astiz eta patxadaz entzutekoa, denboraren mugarriaren zamarik gabe (ordu bat eta bi ordu bitarteko 60 saiotik gora daude entzungai, une honetan). Euskal musikari beterano eta gazte andana bat (Niko Etxart, Olaia Inziarte, Eneritz Furiak...) ezagutzeko parada ematen du saio goxo eta aberats horrek. Balio du jakiteko zein diren musikari horien inspirazio iturriak, gustuko kantuak eta gogoetak. Bide horretan, musikari horiek beren bizitza, ibilbidea eta pentsamendua kontatzen dizkigute. Halaber, entzutera ematen dizkiguten kantuak beste testuinguru batean ulertzeko parada eskaintzen du saioak. Kantutik kantura konpainia onean eramaten gaituzte aurkezleak eta gonbidatuak. Hori guztia, hostoz hosto.

### **#10garrena** podcasta, EITB Podkast

2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aitzakian EITBk ondutako podcast honen egileek irudimenari hegan utzi zioten, egungo bertsolaritza goitik beheiti irauliko luketen final ezohikoak proposatzeko. Zer gertatuko litzateke finalista guzti-guztiak emakumezkoak balira? Eta 'El Juego del Calamar' ospetsuan bezalaxe, txapelduna saioaren hondarrean bizirik gelditzen den azkena balitz? Nolako litzateke finala gaztelaniari atea irekiko liokeen bertsolaritzan? Edota bertsotan publizitatea eta esponsorrak onartuko litzatekeena? Egoera itxuraz ezinezko horiek guztiak eta beste batzuk gehiago, are txundigarriagoak, ageri dira zortzi kapituluko sail honetan. Ekoizpen zainduak, ahots ezagunen partaidetzak eta gidoiari darizkion ironiak eta umoreak gozatua ekarri zieten joan den urteko udazkenean bertsozalearen eta hain bertsozale ez den euskaldunaren belarriei, euskarazko podcastgintzaren osasunaren lekuko.

### **MUAK ET** webseriea

Jokin Etxeberri eta bere bideogile lagunek friki talde bat osatzen dutela ezin uka. 2018az geroztik ari dira tik-tok formatuko bideo laburrak egiten eta plazaratzen serie ezberdinekin. Lehena Eko-gudariena izan zen, eta gaur RAKS sariketa honen kariatara aipatzen duguna ET seriea da. Gordean diren gaiak azalertzeko hasi ziren lanean, ironia eta irri egiteko gogo pixka batekin. Aurten, Kanalduden ikusi den sail honetan, euskal emazte berezi batzuen potretak eskaini dizkigute: Camille Chopin argazkilaria, Amaia Castorene kozinaria, Ziomara Hormatexa eta Izarne Oyartzabal dantzariak edo Ixa Rodriguez boxeolaria, besteak beste. Bizpahiru minutuko saioak dira, zaintsuki muntatuak eta rap musika batekin bukatzen direnak. Bestelako euskal sorkuntza mundu baten dasta ematen digute eta hori eskertzekoa da. Originaltasunik bederen ez dute eskas.

## **HARPA JOTZEN** podcasta, EITB Podkast

Hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua, euren espektakuluetan Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak aspalditik jorratzen dituzten gaiak dira. Eta 2023.eko otsailetik, POZKASTA sortzen dute euren ahotsekin. Pozkasta-Podcasta, hitz jokoak berak, hasieratik esaten digu HARPA JOTZEN ironiaz beterik datorrela. EITB podkast atarian agertzen zaigun umorezko kanala da. Gidariak, Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena dira, aurrez ere harpa-jole profesional ezagun direnak. Herriz herri beren ikuskizunen bidez erakutsi duten bezala, umorea banatu nahi dute lau haizetara. Horregatik sortu dute podcasta edo eta hobe esan, pozcasta eurek izendatu nahiago duten bezala.

Aurki dituzu, Idoia eta Mirari, harpa-jotzera hurbildu dituzten elkarrizketatuak alboan dituztela, aldarterik onenean. Entzumenari lekua eginez, euskal ironia estilo propioa sortu duten bi emakume artisten proposamena da.